

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1836

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 31koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, Barakaldoko Hiri Tranbiari buruzko informazio-azterlana jendaurrera ateratzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Sektoreko Lurralde Plana otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zen. Plan horretan, proposatzen da Nerbioi ibaia-
ren ezker aldean metro arinaren beste korridore bat egitea, Zorrozaurre, Lutxana, Galindo eta Urbinagako lur industrialen hiri-berroneratzearekin lotua.

Informazio-azterlanaren helburua da zehaztea zer obra egin beharko den, nolako eragina izango duten eta zer balorazio ekonomiko duten. Izan ere, horiek guztiak beharrezkoak dira Barakaldoko tranbia-zerbitzua egin eta abian jartzeko.

Dokumentuan, aztertzen da nolako alternatibak dituen Barakaldoko hiri-tranbiak, erreferentzia-
tzat hartuta aurretik egindako azterlanetan prestatutako dokumentuak.

Barakaldoko tranbia hiriarteko zerbitzu moduan planteatzen da, eta, Sestako Urbinagan, alda-
gune baten bidez, Bilboko Hiri Trenbidearen 2. linearekiko eta RENFEren aldirietako trenarekiko
konexioa ahalbidetuko du, bai eta aurrerago Leioan eta EHUn zerbitzua emango duen tranbiare-
kikoa ere. Ansioko geltokian –BEC eta Bagatza aldean–, Bilboko Metroaren 2. linearekin konexioa
egiten lagunduko du; alde horretatik, aldagune moduko bat izango da hiri-trenbideen eta hiriarte-
koen artean.

Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek gainbegiratu dute proiektua, eta
egiaztatu dute teknikoki zuzena dela eta trenbideen arloko legeria betetzen duela, bai eta Trenbide
Sektoreari buruzko Erregelamenduaren 11. artikulutik 16.era bitartekoetan eta indarrean diren gai-
nerako lege-xedapenetan ezarritakoa ere.

Organo honek eskumena dauka Jaurlaritzaren Kontseiluarentzat gordeta ez dauden tren-
bide-sareko proiektuak idatzi eta onartzeko, betiere Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren
egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 30eko 248/2014 Dekretuaren 14.1.b)
artikuluaren xedatutakoari jarraituz (dekretu hori abenduaren 30eko 248/2014 Dekretuaren bidez
aldatu zen).

Trenbide Sektoreari buruzko Erregelamenduaren 10.5 artikulua ezartzen duenez, infor-
mazio-azterlana, behin betiko onartu baino lehen, jendaurrean erakutsi beharko da 30 egun
baliouduneko epean, nahi duenak alegazioak aurkez ditzan trazaduraren ikusmolde orokorrak,
ikusmolde horrek interes orokorreko alderdiei eragiten dien neurrian.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean
eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan ezarrita-
koari jarraituz, proiektuaren ingurumen-inpaktuari buruzko azterlana jendaurrean erakutsi beharko
da, organo sustatzaileak aplikatu beharreko prozeduraren barruan.

Beraz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak iku-
sirik, honako hau

2015eko apirilaren 23a, osteguna

EBAZTEN DUT:

«Barakaldoko Hiri Tranbiari buruzko informazio-azterlana» eta haren ingurumen-inpaktuaren gaineko azterlana jendaurrera ateratzea, hain zuzen ere udal, elkarte eta partikularrek jarduketa horren edukiaz, interes orokorreko aitortzeko arrazoiez, trazaduraren ikusmolde orokorraz eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaz alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Horretarako, hogeita hamar egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau azkenekoz argitaratu eta bihamunetik hasita.

Epe horretan, proiektua jendeak aztertzeko moduan izango da, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean), Barakaldoko eta Sestako udaletxeetan eta www.euskadi.eus web gunean (Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren atalean).

Eta horrela jakinarazten da herritarrek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 31.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
MARÍA ALMUDENA RUIZ DE ANGULO DEL CAMPO.